

Pentsatzeaz



EL PAIS / SR. GARCIA

Pentsamendu erradikala agertzen den bakoitzean, dikotomia baten aurrean ipintzen gaituela dirudi, hautu moral baten aurrean, non baten edo bestearen alde jartzeak, parekoa etsaitzat bihurtzen duen.

Hori da pandemia-gerra-pentsamendua; anbiguotasunerako tarterik uzten ez duena.

Pentsamenduaren ezaugarriak behinena da muturreraino jo dezakeela; jakinda ere, muturrera jotze hori “ekintza programa” bihurtu nahi dugunean, absurdura goazela.

Pentsamendua orokortasun psikiko baten parte da, eta beste ikuspuntuetatik begiratzera behartzen gaitu –pizten duen erresistentziatik, ezin ulertutik, beldurretik...–.

Pentsamenduaren autonomiaz jabetu behar dugu, baina baita haren morrontzez ere.

Pentsamendua ubikua da. Eraman gaitzake posizio oso ezberdinetara, kontrakoetara. Enpatiarako gaitasuna eskatzen du, baina ez, nahitaez, identifikazioa.

Pentsamenduak ideologia du etsai nagusia: ideiez –aurreiritziz, dogmez, formulez, katiximez– mozorrotutako errezetategia, zeinak errealtatearen anbiguotasunetik, kontraesanetatik, atzaparkadetatik babesteko erabiltzen dugun. Gu eta Besteen arteko lubaki eta muga zorrotzak eraikitzen ditu, eta ideiez edo hitzez harrika ibiltzeko aukera kontsolagarria ematen digu.

Krisietan, zuzentasun politikoaren arabera murrizten dira esan litezkeen hitzak eta esamoldeak. Zerrenda osa liteke: “Datuek” hartzen dute lehen lerroa –kutsatuak, artatuak, txertatuak, hildakoak...–, estatistikaren ideologia, *Big Data*-ren aroa. Eta “adituak”, “zientziak”.

Uste oso zabalduaren kontra, oso gutxi dira ondo pentsatzen dakitenak. Horiek badakite pentsatzea beren buruarekin borroka batean sartzea dela; guardia jaitsita, zauritua eta jipoitua amaitzeko liskarretan murgiltzea. Defentsetan dituzten arrakalak zabaltzeko prest egon, eta errealtatearen ustekabeko osagarriei ongi etorria ematea da pentsatzea.